

EUSKARAMELA

© Mirentxu Ibargarai

2013-apirila LM5

Kantua (Ai bexamela, Maixa ta ixiar)

Ai KARAMELA

EUSKARAMELA

AI KARAMELA

Maite zaitut samina, bizi ta garratza

Maite dut zure piper eta gatza

Maite zaitut gozoa, ezti ta xamurra

Zu ene bihotzeko azukre koxkorra

Maite zaitut carpaccio edo keztaturik

Maite dut zu ahoan murtxikatzea

Maite zaitut AI dente edo egosirik

Maite dut zure saltsa milikatzea

Aurkez 1 :

Euskararen gustoa

Haren zapore justua,

gazi, gozo

Xamur, zail

Gordin ala errerik

Euskara gustu bat balitz, zer litzateke ?

Aurkez 2 : Horra zeren asmatzera saiatuko diren gaurko 10 sukaldariak !! Eta horien epaitzeko epaimahai zorrotza ! Sar daitezela beraz !

Musika

Aurkez 1 : Kasu, kasu, lehen bosten txanda da, kontzentratuak zarete ? Kasu, kasu ! JO !!!

Lehen txanda

Publikoa parean dutela hasten da ganiten dantza, denak berdin ari dira, ondotik zartainak eskuan lasterka espazioan barna eta azkenik bizkarrez, eskuak dantalan xukatuz eta artetan gibelera so eginez eriak zurrupatzuz.

Aurkez 2 : GELDI ! Horra zatozte zuen plateren aurkeztera

Etzekoa : Enetzat euskarak etxeko gustua du, supazterraren gustua, beti berdin preziatzen dena, simple bezain ona, goizetan askaiteko, eguerditan bazkaltzeko eta gauaz afaltzeko jan daitekeena, euskararen gustua xingar eta arroltzearena da. Ahantzi gabe ezpeletako bíper birbirit bat !

Ez legeztatua : Horra ene ideia : euskara ez da legeztatua, ez da ezagutua. Beraz nik euskara ARBIArekin errepresentatu nahi izan dut, prestigioa eman nahi izan diot arbiari. Caviar eta ostren artean kokatu dut trufazko saltsa batekin.

Moderno (1): Nik asaldatu nahi nuke, ze euskara zaharra, tradizioa, baserria, supazterra, ! Ez euskara moderno da, badaki gaurregungo bizimoldeari egokitzen beraz ene plata gaurko jende presatu eta eztrezatuentzat egina da, fite egina, kolorante piska bat, kontserbante anitz, kongelatzen ahal dena, fite berotua : 2 minutuz mikro-ondan. Lasañak prest-prestak (zaldikirik gabe e !)

Moderno (2) : Barkatu, euskara moderno bai, baina ez zentzu hortan ! Enetzat euskara moderno Arzak, Ibarboure anaiak edo Adurizen sukaldaritzak dute adierazten, hameka gustu eta zapore gazi-gozo nahasten dituenak, horra beraz zigala erreak jengibre saltsa eta bere koralaren olioan, vieira zitrikoen ozpin-olioa eta endibia karamelizatua.

Labela : euskarak euskal Herriaren gustua du, sor-markakoa da beraz horra Tolosako babarrun ekologikoak, K kalitate labeleko txipiroiak, idokiko ahate urinekoa, eta ... Ossau-Iratiko ardi-gasna !

Epai gaizto : Ze lotsa ! Ze espantua ! Nazkagarria ! Zoin errex Manex !

Oroonon : Ene aho sapaiern zorabioa ! Hauta ! Ene zentzu guziak iratzarri dituzue !

Epai xintxo : ausartak izan zarete, bide zidorretarik atera zarete, begi zorrotza eta sunda handia duzue !

Aurkez 1 : Ongi ongi !! Badugu hautua, zaila izanen zaizue epaileak e !! Orain bigarren txanda prest ?? JO !!!

Sukaldarien dantza

Aurkez 2 : GELDI TA ESKUAK ALTXA! Horra zatozte zuen plateren aurkeztera

Lagun artea : Euskarak enetzat lagun artearen zaporea du, ustegabeko elgarretaratzearena, beraz zerk KUZKUZA baino hobeki adieraz dezake hori ! Harreman sortzaile dena, ongi asebetetzen zaituena.

Konplikatua : Euskara super konplikatua da, entseatu zarete ikastera ? Nik ez dut lortu e !, beraz nik plata konplikatu bat sortu dut, egundainoko pH azido-basikoa duen saltsa batekin , eta 79,52 grado zelziusetan karamelizatzen dena.

Ezin asmatuzkoa : Enetzat euskara hain da magikoa, hunkigarria, misteriotua, ederra, aberatsa,seko blokatu bainaiz, eta emozioak gaina hartu dit, oilo ipurdia jarri zait eta hara ... deus ez dut beraz, hara barkatu zuei eta barkatu zuri euskara, bo olala

Unibertsala : Euskara beste hizkuntzen heinean da, euskaldunak ez gira besteak baino gehiago ez gutiago , beste herri guziek bezala badugu gure hizkuntza eta orduan miatu dut, miatu dut eta hara : bretainian krepak, Guatemalan burritoak, Txinan nemak, Mexican fajitak, eta Euskal Herrian ... TALOAK !!

Gozoa : baina nora zoazte en lagunak ?? Euskararen zaporea xerkatzeko begiak hetsi behar dira, eta zer gustu heldu zaizue gogora e ???!! Zapore gozoa bistan dena , ahoan urtzen dena, txokolate urtuz egin bixkotxa, karamelazko izozkiarekin

Epai gaizto : Baduzue burutik ! Ze goaindida ! Ahalgingarria ! EEERk !!

Oroonon : Ahotik ezin utzia ! Xelebrea ! Arraroa !

Epai xintxo : Zinez sortzaile agertu zarete, asko saiatu zarete, biba zuek !

Aurkezle 2 : Kasu, kasu ! Orai gure 3 epaileek istant bat hartu beharko dute 10 plat horien artean gustu justuena hautatzeko !

Danborra entzunen da, kalapitak sendi dira, eta epaile lodia eszena erdira etorriko da paper batekin.

Aurkezle 1 : AAAh ! Zaila izan zaizue baina halere lortu duzue ! Biba zuek ! Zato OROONON Jauna !

Oroonon : Beraz, luzaz eztabaidatu ondoan, horra gure irabazlea

Papera begirutzen du eta urratzen du.

Ze epaitu, bo, bo, bo, euskarak ez ote ditu zapore horiek guziak, nik denak gustukoak ukan ditut ! Euskarak, gaur jastatu ditugun zapore eta gustu guziak ditu, horiek guziek osatzen dute gure EUSKAMELA ez dea hala ??????!!!!

Musika ta kantua AI KAMELA / DENAK ATERATZEN DIRA




Antzerki testu hau Euskal kultur erakundearen web-atarian zintzilikatua izan da, egilearen baimenarekin, <http://antzerkit.eke.eus> helbidean, Iparraldeko euskarazko antzerki testuak biltzen dituen atal batean.

© Copyright lizentziapean zabaldua da.

Ondorioz, ezin zaio inolako aldaketarik ekarri egilearen baimenik gabe.

Ilido beretik, antzerkia publikoaren aitzinean eman nahi izanez gero, egilearen baimena eskuratu behar da derrigorrez (edota egilearen eskubideak kudeatzen dituen pertsona edo erakundearena).

Harremanetan sar daiteke zuzenenean berarekin edo Euskal kultur erakundearen bidez antzerkia@eke.eus helbidera idatziz.



antzerkit.eke.eus

Ce texte provient du recueil d'œuvres théâtrales en langue basque mises en ligne avec l'accord de leurs auteurs dans une rubrique du site de l'Institut culturel basque à l'adresse <http://antzerkit.eke.eus>.

Il est diffusé sous une licence © Copyright. De fait, aucune modification ne peut lui être apportée sans autorisation de l'auteur.ice.

De même, cette œuvre ne pourra être donnée en public qu'après avoir obtenu l'accord de l'auteur.ice (ou de la personne ou de l'organisme la représentant). Vous pouvez, à cette fin, le/la contacter directement ou obtenir ses coordonnées par le biais de l'Institut culturel basque en adressant un message à l'adresse antzerkia@eke.eus.